

ELKAR EZAGUTZEN**Ondo ezagutzen dugu elkar¹**

Hasieran, jarduera bakarka egingo dute, eta, ondoren, talde handian. Jardueraren helburua da ikasleek elkar hobeto ezagutzea. Taldeak ondo funtzionatzea, hein handi batean, ikasleek elkar hobeto ezagutzearen mende egongo da.

Ikasle bakoitzari behean azaltzen den taula emango zaio eta bakoitzak, bakarka, bertako datuak beteko ditu.

Bete ondoren, inprimaki guztiak jaso eta ausaz banatuko dira. Ondoren, ikasle bakoitzak egokitu zaion kidea aurkeztu beharko du besteen aurrean, baina nor den esan gabe, bestek irakurritako fitxaren egilea identifika dezaten.

TALDEAN AURKEZPENA EGITEKO

..... izena dut eta
 deitzea gustatzen zait urte ditut.

Ona naiz

Nire akats nagusia da

Gainerakoengandik gehien gustatzen zaidana da

Gainerakoengandik gutxien gustatzen zaidana da

Nire ustez, ondo moldatzen naiz

.....

Jarduera egiten den bitartean, errespetuzko giroa bermatu egin behar da.

Jarduera egin eta gero, denbora-tarte bat izango dute balorazioa egiteko:

- ✓ Zer egin dugu ondo?
- ✓ Zer egin behar dugu hobeto?

Irakasleak jasoko du ikasleek esaten dutena eta hurrengo saioan gogoraraziko die.

¹ Pujolas, P. eta Lago, J. R. (Koord.): *IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»)*
TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan.